

Jai Zale taberna, euskaraz bizitzeko gune

Urtarriletik txoko berri bat dago zabalik Arrasaten: Jai Zale taberna. Arrasateko Euskal Herrian Euskarazek kudeatzen duen espazioa da, euskararentzat arnagune izan gura duena. Eurek proposatu eta eurek hartu dute Arrasaten Argia Egun Txikia antolatzeko ardura.

| AMAIA UGALDE BEGOÑA |

ARRASATEN 15 eta 24 urte arteko herritarren %88 da euskaraz berba egiteko gai, baina gazteek kalean izaten dituzten elkarrizketetatik %36 baino ez dira euskaraz izaten. Datuok jakin aurretik ere, Arrasateko EHEko kideek sumatzen zuten egoera ez zela osasuntsuena. *Arrasateko gaztiok euskaraz bizitzera goiaz* aldarria sortu zuen EHEk duela hiruzpalau urte, eta orduantxe hasi zen taldea indartzen. Hainbat gazte hurbildu ziren taldera, eta gaztetasunak taldeko motibazioa indartu zuen; ekintzak egiteko gogoia eta bidean topatutako erronkei aurre egitekoa. Azken erronka handia Jai Zale taberna zabaltzea izan da. Espazio horri buruz eta EHEko asmoei buruz berba egiteko taldeko bi kideekin izan gara, Mikel Maka-

zagarekin eta Maider Azkarraga-Urizarrekin.

Hamabi lagunez osatutako taldea da Arrasatekoa, eta kideen batezbesteko adina 22 urte da. Mikel Makazagaren ustez, gaztetasun horri esker ekin zioten Jai Zale tabernaren proiektuari. Lokala alokagai jarri zutela ikusi zuten, eta “beroaldi moduko bat” izan zutela aitortu dute. “Bi-hiru egunetan elkartu ginen denok hausnarketa sakona egiteko eta ikusteko ea gure norabidean tabernak tokirik bazeukan”. Eta bai, proba egitea erabaki zuten. Ilusio eta lan handiko hileak izan dituzte, Santamasetan lokala eurena izango zela jakin zutenetik.

Taberna eta elkarte gastronomikoa da Jai Zale. Lehenago Gorripidea kultur elkarteak kudeatzen

zuen, eta taberna hartzeko hainbat hautagai egon baziren ere, EHEri alokatzea erabaki zuten elkartekok: “Eurak ere euskaltzaleak dira, eta norbanako batek taberna normal bat zabaldu ordez geuk hartzea ondo ikusten zuten”.

Urtarrilaren 16an egin zuten inaugurazioa, eta ordutik hona taberna baten funtzionamenduaz asko ikasi dute Arrasateko EHEko kideek. Jada martxa hartuta daude, baina lehen hileetan sekulako lana egin zutela gogoratzen dute: “Gil tzak urtarrilaren 3an eman zizkiguten, eta itzela izan zen, batzuetan 20:00ak arte lan egin, eta gero 20:00etatik 03:00ak arte margotzen, sukaldeko kontuak hornitzaileekin adostu, dena ondo garbitu...”. Mikel Makazagaren ustez, hori gaz-



teak izanda baino ezin daiteke egin: “29 urte dauzkat, eta ni naiz taldeko nagusiena. Denak nire adinekoak izango bagina, atzera botako ginatke”.

Orain bi langile dituen taberna da Jai Zale; baina ez da taberna hutsa, kultura programazioa eta euskararekin lotutako jarduerak eskaini gura dituen gunea da.

Eragiteko gunea

Taldea indartsu zegoen momentu baten erabaki zuen EHEk Jai Zale sortzea, eta taldea indartzeko bidea izan daitekeela uste dute. “Jende asko hurreratu da ‘horrelako zerbait behar zen’ esatera”, kontatu du Maider Azkarraga-Urizarrek. Herrian euskaltzaletasunarekin lotutako espazio bat izateak gazteen euskara erabileran eragingo duela uste dute EHEko kideek. Mikel Makazagaren iritziz, “euskalgintza-aren erreferente inportantea gara momentu honetan, eta hori tabernari esker ere bada”. Taberna barruan kalean baino euskara gehiago entzuten dutela dio Makazagak: “Jai Zalen elkarriketen %36 baino gehiago entzuten da euskaraz; zenbat izango dira, %85 inguru?” Azkarraga-Urizar ados dago: “Normalean erdaraz egiten duten koadriak euskaraz entzun ditut hemen”.

Argi dute Jai Zale ez dela taberna soila, eta EHEren betiko egitekoek ere garrantzia izan behar dutela, bai tabernan bertan, eta baita kalean ere: “Taberna hartu eta gero, euskalgintzan presente egon gara, txosna batzordean ere oso aktibo ibili gara, kalean ere egon gara... Egia esan, tabernak indartzeko modu bat eman



JUAN LUIS ELIZGARAI

Arrasateko EHEn hamabi lagun dira. Batez beste 22 urte dituzte. Argazkian, urtariletik beraiek kudeatzen duten Jai Zale tabernan, Euskaraz bizi egunean.

digu”. Jai Zalen bertan, orain arte kontzertuak, bakarrizketak, jardunaldiak, osasungintza euskalduntzeko kexen bilketa eta bestelako ekitaldiak antolatu dituzte, eta ideia eta proposamenetara irekita daudela azaldu dute.

Euskararen erabileran eragiteaz gain, bertoko produktuen kontsumoa sustatu gura dute EHEko kideek. Horregatik, Arrasate inguruko ekoizleen janaria erosten saiatzen dira. Musika ere zaindu gura dutela azaldu dute, eta talde euskaldunei lehentasuna emateaz gain, abesti matxistak ez jartzeko galbaha pasatzen saiatzen dira.

Proiektu handiagoa buruan

Lokalak toki gehiago edukitzea gus-tatuko litzaieke EHEko kideei:

“Txiki geratzen da. Euskalgintzako jardunaldi batzuk egin genituen eta 40 bat pertsonekin estu ibili ginen”, gogoratu du Makazagak.

EHEn, Jai Zaletik haratago, Arrasateko euskalgintza osoak denek batera kudeatu dezaketen espazio batekin egiten dute amets. Herrian elkarte eta eragile asko dabil euskalgintzan lanean. Betidanik egon da mugimendua. AED, AEK, Txatxilipurdi aisialdi taldea, udal euskaltegia, ikastetxeak, EHE bera... Eragile horiek guztiak Euskalgintza sarean batzen dira eta elkarlanean dabilta hainbat egitas-motan. Indarrak batu eta espazio txukun bat sortzea gurako lukete EHEko kideek. Kafe antzokien antzera, baina formula propioa sortuta: “Hamabi gaztek sortu badute

TXIKITIK ERAGITEN ARGIA eguna 2015

ARGIARI buruzko iritziak jasotzen jarraitzen dugu. June Fernández *Pikara Magazine*-ko zuzendariak feminismoaren aldeko apustu ausarta egin izana eskertzen dio ARGIARI: “Jorratzen dituzten gaietan eta edukietan nabaritzen da, baina baita ere lan egiteko prozesuetan eta kolaboratzaileekiko harremanetan. ARGIAN argi daukate hedabideek erantzukizun sozial garrantzitsua dutela, eta berdintasunaren eta aniztasunaren alde egiteak kazetaritza aberasten duela”.

Joanes Etxebarria bertsolariaren ustez, “geografikoki ala politikoki beste nonbaitera begiratzeko prisma da ARGIA. Sarean berriz, mundu txikiak handiago egiten ditu”.

Iñaki Kasares harpidedunak euskalduntzen hasi zenean ezagutu zuen ARGIA. Ordutik gaur arte izan du bidelagun: “Duela urte gutxi batzuk, ARGIAren informazio kalitateari erreparatzen hasi nintzen. Egunerokoaren zurrunbilotik harago, mundua Euskal Herritik ezagutzen eta, are, ulertzen laguntzen zidan, ikuspegi kritiko eta zintzoaz. Nire burua janzteko tresna informatibo gisa preziatzen hasi nintzen. Azken urteotan, ARGIAren proiektuari arreta handiagoz begiratu diot. Txikiak pairatu ohi dituzten oztopo eta zailtasunei buru egin eta bizirik iraun ezezik, enborean adar berri eta arrakastatsuak hazi ere egiten zitzaizkion: aldizkarian, webgunean, sare sozialetan... Eta zerbait harrotu zen nire baitan. Bai, harrotasuna euskalduna izateagatik, gure txikian handi-handien parekoak izan gintezkeela ikusirik. Eta, preziatu baino gehiago, nire lorategi xume-ko lorerik ederrenetakotzat maitatzen hasi naiz ARGIA. Eta ohartu naiz, gainera, lore eder horrek, petaloak bailiran, aurpegiak dituela, eta izenak, egunero-egunero, kosta ahala kosta, iluntasuna pixkat urratzen eta ARGIA pizten diguten pertsona horienak guztienak (izan direnenak, direnenak eta izango direnenak). Beraz, eskerrik asko bihotz-bihotzez zuoi guztioi, euskaldunon lorategia are bizigarriagoa egiten duzuen ARGIAko lan-taldeko, eta jarraitu TXIKITIK ERAGITEN!”.

hau, Euskalgintza batek zer ezingo luke egin?”), bota du Azkarraga-Urizarrek. Toki erreferente hori sortzeko bidean, Jai Zale “proiektu pilotu” moduan ikusten dute: “Bi urtetarako hartu dugu lokal hau, eta

gure helburua toki on baten eta beste eragileekin batera horrelako espazio bat sortzea da; taberna hutsa ez den leku bat, bertan euskaraz bizi ahalko den lekua, bertako produktuak kontsumituz”. ■

‘Gaztiok euskaraz bizitzera goiaz’

ADMINISTRAZIOAN, aisialdian edo esparru formaletan euskara bultzatzeko lan handia egin du Euskalgintzak Arrasaten. EHEk bere lan-eremua gazteengan eta kale erabileran ikusi du. Ezagutzaren eta erabileraren arteko aldea dela eta, gazteak motibatuzko, gazteengandik irteerako ekimenek dute indarra Mikel Makazagaren berbetan: “Jende gaztea da gakoa, zuzeneko harreman hori”.

Maidar Azkarraga-Urizarren ustez, hainbat arrazoi egon daitezke gazteek euskaraz berba ez egiteko: “Ohiturak dira, baina baita familiako transmisioa ere”. Adin-tarte bateko moda dela ere sumatzen dute, eta neska koadriletan, mutilenetan baino euskara gehiago entzuten dela diote. Euskararen inguruan herrian dauden sentipenak jasotzeko, bideo bat egin dute aurten, eta hainbat koadrilatoko gazteak agertu dira bideoan, euskarari eta euskararen geroari buruz pentsatzen dutena esaten. EHEN ildo horretatik lan egiteko asmoa dute. Euskaltzale taldea lagun taldea bihurtu da, eta jarrera zirikatzaile eta alaiarekin, herriko beste gazteengan eragitea da euren gogoia.



Asteasuko Industrigunea
G-gunea Atea 9. 112. pabilioia
20159 Asteasu - Gipuzkoa
☎ 943 69 20 54 www.lurlan.org lurlan@lurlan.org

